

MENDIZORROTZA

■ Jon Rejado

Arrazoi ote du...?

Arrazoi ote du Manek Alavesen sasoi ikusgarria estaltzen saiatzen denean? Galdera hori Osasunaren kontrako partida ikusi zuten zale askoren buruan sortu zen etxerako bidea hartzerakoan. Mendizorrotzan ikusi diren azken bi partidetan Alavesek nortasuna erabat galduta jokatu du. Kasualitatez, Sevillaren kontrako partidaren aurretik, Gasteizko taldea lidergoan sendotzeko

aukera zen gai nagusia. Osasunaren kontra ere, Neguko Txapeldunak izateko aukera zuten Manerenak, eta horretaz luze hitz egin zen hedabide askotan.

Alavesen nortasuna agerian gelditzen da zelaian zein zelaitik kanpo, eta alde batek huts egiten duenean taldea bera kolokan gelditzen da. Manek izaera berezia barneratu die bere jokalariei:



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS
Mane, herenegun, Alavesen aulkian.

lana, zuhurtasuna eta apaltasuna. Bide horri jarraitu dion bitartean, Gasteizko taldea geldi zezakeen inon ez zen ageri.

Manek zabaldutako ideia, ordea, kolokan dagoela ematen du. Saillapeneko beheko tokietan dauden taldeen kontra galdu ditu azken bi partidak Alavesek. Apaltasuna eta zuhurtasuna amets handi itzalpean geldituko ote dira? Teneriferen kontra ikusiko da hori, Mendizorrotzan bertan. Nortasunaren itzulera biziki eskertuko dute zaleek, irabazi edo galdu.

ATHLETIC. Heynckesek gaur emango du deialdia, eta, ondoren, Vila-realera joango dira

Ligako porrota ahaztuta, Kopa dute buruan orain zuri-gorriek

Zailtasunak zailtasun bihar emaitza «ona» lortzea da jokalarien helburu nagusia

Haritz Gallastegi | BILBO

Ligan hamar jardunaldi galdu barik egin ostean Teneriferen aurka galtzeak min egin zuen Athleticen. Hala ere, Teneriferen aurkako partida alde batera utzi, eta Espainiako Kopako final-laurdenak buru-belarri

prestatzeko ekin dio talde zuri-gorriak.

Vila-real talde ona da. Jokalari onak dituen kluba da, baina ez da garaitezina. Gainera, Victor Muñozek zuzentzen duen taldeak ere beherakada nabarmena izan du azken asteotan. «Taldea biok emaitza txarra lor-

TIKO

Athleticeko jokalaria

«Vila-real gustukoa dut. Aurrean erabakigarriak dira eta atzealdean jokalaririk gogorak dituzte»

tu dugu Ligako azkenengo jardunaldian, eta, beraz, antzerako egoeran aterako gara. Itzuliko neurketari begira emaitza ona lortzen saiatuko gara», adierazi zuen Ezquerrok atzo.

Athleticek aurtan San Mamesen erakutsitako zalantzak aintzat hartuta, joaneko norgehiagoka Madrigal futbol zelaian jokatzeko agian zuri-gorrien onerako izango dela uste du Athleticen Kopan duen gogolerik onenak. «Hasiera baten, baliteke etxetik kanpo jokatzeko abantaila izatea guretzat. Hala ere, Vila-realen

futbol zelaian emaitza ona lortzea ez da izango erraza. Euren ere zerbait garrantzitsua egiteko gogoia izango dute», azaldu zuen Ezquerrok.

Baliteke Tiko hasieratik aritzea

Ligako azkenengo jardunaldian partida ordezkoren aulkian hasi ostean, baliteke Vila-realen aurka hasierako hamaikakora itzultzea Roberto Martinez Tiko. Taldekideen antzerak, Tikok ilusio handia dauka Kopan. Martin Palermo min hartuta egon arren —Juan Antonio Pizzi fitxatu dute Boca Juniorsen jokalaririk ohia errekupeztzen den bitartean—, aurrera egiteko *Urpeko Horiaren* aurrelariari ondo eutsi beharko diete iritzi dio erdilaririk nafarrak. «Vila-real talde oso ona dela uste dut. Atzealdean jokalaririk gogorak ditu, eta aurrelariak, berriaz, erabakigarriak dira», azpimarratu zuen Tikok atzo.

LESIONAK

OSASUNA

Gancedo, Contreras eta Manolo ez dira egongo Balaidosen

Datorren igandean Osasunak Celtaren etxean jokatu beharko du, eta partida horretan Lotinak ezingo ditu zelairatu Gancedo, Contreras eta Manolo. Gancedori denboraldiko bosgarren txartel horia ateratu zioten Gasteizen, eta partida bateko zigorra bete beharko du. Contreras eta Manolok, aldiz, Osasunak Celtak utzita ari direnez, ezingo dute jokatu beren taldearen aurka.


ENTRENAMENDUAK

Athletic. Lezaman ariko dira gaur jokalaririk zuri-gorriak, 10:30ean.

Real. Talde txuri-urdina goizeko 10:30ean entrenatuko da gaur.



Inchausti Estiloa EGONGELETAN



Egongela bat erosiz gero
BESAULKIBOL
bat OPARI

MOBILIARIO
INCHAUSTI

EN-1, Errekalde auzoa. DONOSTIA
Ternuako Arrantzaleak, 2 AMARA (ARCCOren ondoan)

Nabaritzen da estiloa

- Badago gauzak egiteko beste estilo bat. Inchausti Estiloa da.
- Badago zeurea ez beste inorena dena sentitzeko beste era bat. Inchausti Mobiliario-ren egongelak dira. Desberdinak, erosoak eta xehetasunez beteak.
- Egiguzu bisita. Diseinuan, prezioan behar duzun irtenbidea dugu, hala nola merkatuko eskaintzarik zabalena: Arruti, Treku, Nueva Línea, Pianca, Brigitte Forestier, Zanette, Mercantini...



Aholkuak
Proiektuak
Instalazioak

Finantzaketa interesik
gabe: 24 hilabete